

68. atala: Bakarka

Jakobitak

68.1.- Entzun audioa eta adierazi adierazpenak egia edo gezurra diren:

	Egia	Gezurra
San Tomas eguna Tasioren urtebetetze-eguna da		
Tasiok dio Jakobari ez zitzaiola normala iruditzen San Tomasetan jendea baserritarrez janztea		
Jakoba Errekondok baserritarren sekta bat sortu zuen duela 50 urte		
Jakoba aipatzen den bakoitzean Altza Porru esan du Tasiok		
Tasiok dio ez direla sekta bat		
Urtaro desberdinetako produktuak uzten dira Jakobaren kapilatxoan jakobitek goserik pasa ez dezaten		
San Tomasetan Jakobaren estatua baserritarrez jantzi dutela jakitean, Kevin beldurtu egin da		

68.2.- Jakoba Errekondo ezagutzen al duzu? Irakurri artikulua eta osatu esaldi bakoitza dagokion zatia aukeratuta.

(Jakoba Errekondori buruz gehiago jakin nahi baduzu. Ikasbileko fitxa: [2354001](#))



Ilargiak eta itsasoak uzta ona baldintzatzen dute?



Gure aitona-amonek baratzean zer eta noiz landatu jakiteko, beste gauza batzuen artean, ilargiari erreparatzen zioten. Ilgora, ilbehera, ilberria... Ilargia zein puntutan dagoen deskribatzeko, hitz horiek erabiltzen dira, eta euskaraz hirurogei baino gehiago omen daude, tokian tokikoak. Baina, gaur egun, baratzean zerbait landatu nahi badugu, ilargiari begiratuko diogu? Edo zeri erreparatuko diogu?

Uzta ona izateko, hiru gauza hartu behar ditugu kontuan: batetik, zer landatunahi dugun, hau da, hazi-mota bertakoa edo kanpokoa den; bestetik, lurrari erreparatu behar diogu, urteetako zaintza, ongarri-mota, osagai kimikoak erabiltzea; eta, azkenik, eguraldia: landare bakoitzari eguraldi-mota bat komeni zaio, batzuei eguzkia eta beste batzuei euria.

Jakoba Errekondo (Usurbil, 1961) agronomoa eta paisajista da. Berak paisaia kulturalari lotutako proiektuetan lan egiten du, eta komunikabideetan landareen zabalkundean eta kontsulta-lanetan aritzen delako da ezaguna. Duela hogeita hamabi urte hasi zen Euskadi Irratian gai honi buruzko kontsulta-programa egiten, eta 1.000 artikulua inguru argitaratu ditu Argia aldizkarian hogeita bat urtean. Duela urtebete “Bizi baratzea, garaian garaikoa garaiz” liburua argitaratu zuen, eta ordutik herriz herri dabil, hitzaldiak ematen. Liburua, jendearen lehengo eta oraingo ohiturak, ilargia eta itsasoa, eta beste hainbat gai izan ditu hizpide Errekondok.

Ilargia bakarrik ez, itsasoak ere zerikusia du, baina biak lotuta daudelako. Ilargiak itsasoa mugitzen du: azken batean, marea ilargiaren eta eguzkiaren grabitatearen eraginez sortzen da. “Horregatik Euskal Herriko leku askotan, ilgorari “ura gora” esaten zaio eta ilbeherari, urak behera. Beraz, itsasoak eta ilargiak uzta onari lagunduko diotela esan daiteke, baina ez da baldintzatzen duen faktore bakarra”, azaldu digu paisajistak.

FROGATUTA EGOTEA DA GARRANTZITSUA

Nekazaritza produktiboan lanean ari direnek ez diote ilargiari edo itsasoari begiratzen. Edozer lortu ahal dutela uste dute, platanoa landatzea, adibidez. Horretarako, negutegia, berogailua... behar dituzte. Hori egitea, Jakobaren iritzi, gehiegizkoa da: “Etorkizuneko nekazaritzara jo behar dugu, lurrari lotutakoa izateko, ingurumena eta paisaia kulturala zaintzeko, lurra garbi mantentzeko...”. Bere hitzetan, nekazaritza-mota hau zabaltzen ari da, eta, horrekin batera, jendearen heldutasuna eta lurrarekin edo herriarekin duen konpromisoa: “nekazaritza kulturaren zati garrantzitsuena da niretzat, kulturaren oinarria, eta hori leku bakoitzeko naturarekin lotzea oso garrantzitsua da”.

Gure arbasoen garaian, sinesmenak pisu handia zeukan. Gaur egun, berriz, sinesmenei ez, frogei jarraitzen diegu. Badakigu noiz zer landatu behar den, produktu kimikoek zer eragin duten gure osasunean, lurra ondo zaindu behar dela... “Hori guztia egunerokotasunean ikusten da, bai nekazarien bai kontsumitzaileen aldetik. Gero eta gehiago arduratzen gaitu gure osasunak, eta hori denon onerako da”.

“BIZI BARATZEA, GARAIARI GARAIKOA GARAIZ”

Lehen esan dugu orain urtebete argitaratu zuela Jakoba Errekondok “Bizi baratzea, garaiari garaikoa garaiz” liburua. “Liburuak nik uste baino arrakasta handiagoa izan du, eta inguruan sortu den giro hau ez nuen espero”, aitortu digu. Herriz herri 130 aurkezpen egin ditu, eta horrek jendeak interesa baduela adierazten du. Askok baratzea eduki nahi dute, orokorrean gertatzen ari da. “Moderno denak kontsumo-taldea edo baratzea edukitzen du, eta krisiak mesede egin dio: zein kalitatetakoa den ez dakigun zerbait erosteko, hobe geurea ekoiztea. Horretarako, herri-baratzeak, elkarteak... sortu dira. Guztiak lagundu dio liburuari”, esan digu.

Berehala hurrengo liburua argitaratuko du, lehenengotik sortutako komikia. Euskal Herriko zortzi komikigilek hartuko dute parte.

Eta zuk, baratzea duzu edo eduki nahi duzu? Zergatik? Zure ustez, ilargiak eta itsasoak uzta baldintzatzen dute?



Baina gaur egun, baratzean zerbait landatu nahi badugu,
Uzta ona izateko,
Duela hogeita hamabi urte hasi zen Euskadi Irratian
Urte askoan, ilargiari eta itsasoari erreparatu diote
Ilargia bakarrik ez, itsasoak ere zerikusia du
Nekazaritza produktiboan lanean ari direnek
Gure arbasoen garaian,
Askok baratzea eduki nahi dute,

baina biak lotuta daudelako.
orokorrean gertatzen ari da.
patata edo ilarrak landatzeko garaian.
ilargiari begiratuko diogu?
sinesmenak pisu handia zeukan.
gai honi buruzko kontsulta-programa egiten.
ez diote ilargiari edo itsasoari begiratzen.
hiru gauza hartu behar ditugu kontuan.



68. atala: Bakarka

Transkripzioa. Jakobitak (2:55)

T- Ba al dakik zein egun den gaur?

K- Ez baina berehala esango didazu ezta.

T- Abenduak 21.

K- Bale.

T-Abenduak 21... 21...

K- Abenduak 21, bai entzun dizut.

K- Ez da ba zure urtebetetzea izango?

T- San Tomas. Nire urteko egun faborittoa! Plazak jendez gainezka, animalia feria...

K- Ah, bai. "Kaseroz" mozorrotzen garen eguna.

T- "Kaseroz mozorrotzen"??? Baina hi nondik atera haiz?

K- San Tomasetan "kaseroz" disfrazatzea betiko ohitura da.

T- Lotsagarria duk. Jakobak entzungo balu... Altza porru!

K- Jakobak? Pazientziaren santuak? Eta zer esan dezu? Altzapo...zer?

T- Hark ere ez zian ulertzen jendea baserritarrez mozorrotzea.

K- Joder, Tasio, utzi gauza arraroak esateari eta hots egiozu behingoz Eskisabel kapitainari.

E- Niri igual zait, bakoitzak nahi duena egin dezala.

T- Baina mozorrotzen garen momentutik errealitatea folklore bihurtzen dugu. Baserritarren lana espektakulu estetiko hutsa bihurtzen da; azoketako atrezzoak bihurtzen ditugu baserritarrek!

E- Jakobitak oso astunak zarete, Tasio!

K- Jakobitak?

E- Bai, Jakoba Errekondoren jarraitzaileak, sekta bat.

T- Ez da sekta bat! Altza porru!

E- Sekta batean dauden guztiek ukatzen dute sekta batean daudela.

K- Norbaitek azalduko dit zertaz ari zareten hizketan?

K- Ea ulertu dudan. Jakoba Errekondo horrek duela 50 urte "bibliratza" idatzi zuen.

T- Bibliratza ez. Bizi Baratza.

E- Jakobiten biblia.

T- Nahi duzuen esan, baina belaunaldi ezberdinek Jakobaren hitza jarraitzen badute, zerbaitengatik izango da. Altza porru!

K- Altza zer? Baina zer da hori? Gidoilariarekin serio hitz egin beharko dut. Gaurko atalean ez naiz ezertaz enteratzen ari.

E- Altza porru! Jakobiten "Amen". Jakoba aipatzen duten bakoitzean, segidan, Altza porru! esaten dute.

K- Joder, baina zer psikopata klaserekin bidali nauzue Trebiñu Ira?

T- Ez garela sekta bat!

E- Eta Usurbilen dagoen haren estatua eta kapilatxoa?

T- Hori. Jakoba omentzeko besterik ez da. Altza porru!

E- Eta egunero sasoian sasoiko produktuak bertan uzteko ohitura?

T- Hori Jakobari uzta ona eskatzeko egiten dugu. Ohitura. Altza porru!

E- Jakina! Eta horrek ez du inongo antzik sekta batekin.

K- Joder! Beldurtzen hasia naiz. Benetan.

E- Tasio, ba jakin beharko zenuke, aurren, Santomasean, Jakobaren estatua baserritarrez jantzi dutela, txapela eta guzti.

T- Zer?

K- Entzun duzu. Jakoba "kaseroz" mozorrotu dutela!

T- Sakrilegioa! Sakrilegioa!!!

K- Altza porru! Ja,ja,ja...

68. atala: Bakarka

Erantzunak

68.1.-

	Egia	Gezurra
San Tomas eguna Tasioren urtebetetze-eguna da		×
Tasiok dio Jakobari ez zitziola normala iruditzen San Tomasetan jendea baserritarrez janztea	×	
Jakoba Errekondok baserritarren sekta bat sortu zuen duela 50 urte		×
Jakoba aipatzen den bakoitzean Altza Porru esaten du Tasiok	×	
Tasiok dio ez direla sekta bat	×	
Urtaro desberdinetako produktuak uzten dira Jakobaren kapilatxoan jakobitek goserik pasa ez dezaten		×
San Tomasetan Jakobaren estatua baserritarrez jantzi dutela jakitean, Kevin beldurtu egin da		×

68.2.-

Baina gaur egun, baratzean zerbait landatu nahi badugu, (ilargiari begiratuko diogu?)

Uzta ona izateko, (hiru gauza hartu behar ditugu kontuan.)

Duela hogeita hamabi urte hasi zen Euskadi Irratian (gai honi buruzko kontsulta-programa egiten.)

Urte askoan, ilargiari eta itsasoari erreparatu diote (patata edo ilarrak landatzeko garaian.)

Ilargia bakarrik ez, itsasoak ere zerikusia du, (baina biak lotuta daudelako.)

Nekazaritza produktiboan lanean ari direnek (ez diote ilargiari edo itsasoari begiratzen.)

Gure arbasoen garaian, (sinesmenak pisu handia zeukan.)

Askok baratzea eduki nahi dute, (orokorrean gertatzen ari da.)